

...eta

# kittó!

945 zkia.  
2015-X-9



## Ilusioari HAUSPOA ematen



### Recalde

Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiziaren kirurgia  
Begi lehorraren tratamntua.





# Mundu konektatuan entzutea

Digital  
audifonoekin  
**haririk  
gabeko  
osagarria  
opari\***



TELEBISTA

MUGIKORRA

HI-FI

HILABETE  
HONETAN  
**PILAK 2€**

\* Digital audifonoen egokitzapen binauralarekin, haririk gabeko osagarria opari. Eskaintzak 2015eko urriaren 1etik 31ra arte balio du. Ezin da beste eskaintza batzuekin pilatu.

Entzumen-test integralak

Audifono digitalak

Neurrira egindako tapoiak

Konektibitate-soluzioak

Mantentze-tekniko integrala

Neurrira egindako finantziazioa



**audiocentro**  
Igmar

Julian Etxeberria, 2

20600 Eibar

Tel. 943 20 26 99

Audioprotesis goi mailako  
teknikaria: Antón Martinena

# ASTEAN ESANAK

"Kamioitik irten eta Repsol markaren gasolindegia ikusi zutenean negarrez hasi ziren, Espainian zeudela ikusi zutelako. Hiru kurdu gizajoez irtetzeko gogoia zuten, baina Ingalaterran egotea esperoan, ez Espainian"

(IONEL ETA MOROSAN,  
HERNANIKO KAMIOLARI ERRUMANIARRAK)

"Gaurko arazoak ezin dira konpondu atzoko gehiengoekin. Ni Espainiako Gobernuan izan nintzenez, 82an, gerra hotza geneukan munduan, eta gaur egungo mundu globalizatuan, aldiz, munduko zazpi ekonomia handien artean ez dago europarririk. Hobe dugu hori kontuan hartzea gu geu desagertu aurretik"

(JAVIER SOLANA,  
NATOko IDAZKARI NAGUSI OHIA)

"Eskandinaviar mailatik espainiar mailara jaitsi gara Islandian: udan, turismoaren boomarekin, baikortasun handia egoten da, baina neguan denak egiten du behera. Hemen izozmendi baten puntan gaude, bankuen zorroretan harrapatutako atzerriko kapitalen gainean"

(ELVIRA MENDEZ,  
UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA)

"Gure seme-alabek ondoegi bizi dira; ez dute goserik ahalegin handiak egiteko. Gure enplegua munduan dago. Alemanian egotea ez da etxetik kanpo egotea hegazkinak egonda. Etxean aitatxo eta amatxorekin goxo egotea, ezkontzea eta Donostian etxea ezinezkoa izango da. Ez dugu sinetsi nahi, baina hala izango da"

(PELLO GIBELALDE,  
ADEGIKO PRESIDENTEA)

## Gure aurrekoak erabiltzen zuten eusquera

**KOPETA.**- Mototsa, txoria. Gaztelarazko 'trenza'. "Maiatzeko lorak lezkotxe ederrak hango neskatillak, kopeta luze birekin".


**KOPETADUNA.**- Neskei (oraindik andra ez direnei) esaten zaie. "Atzo arte kopetaduna; gaurtik ule jasua dau".

## eskutitzak

### GORA HERRIAK EKITALDIA IRUÑAN

Datorren astelehenean, hilaren 12an, Askapena eta beste talde internazionalisten aldeko ekimena egingo da Iruñan, eguerdiko 12.00etan hasita. Ordu horretan Antoniutti parketik abaituko da Herri Libreen Martxa eta, Gora Herriak! ekimenarekin jarraitzeko, Nabarrian kale-animazioa, sorpresak eta hainbaten parte-hartzea izango da: Bad Soun & Juanxo Glaukoma, Sonido de la Metralla, Afu, Dj Majaris... Jaso ezazue hemendik bertara joateko gonbidapena.

**EIBARKO LIBRE TALDEA**



### - OHARRA -

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zerbakia derigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk

onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitzke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

**ERREDAKZIOA**



Euskara Elkarteak

**ARGITARATZAILERA:** ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar **TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72. **Astekariaren €-MAILak:** erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus / publizitatea@etakitto.eus **Elkartearen €-MAILak:** elkarte@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus **ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Jose Luis Gorostegi eta Silbia Hernandez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi. **ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri. **PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIAK:** Mogel-Isasik lagata **BANAKETA-ARDUA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati). **COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679 ("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunik)



**EIBARKO  
UDALA**



**Gipuzkoa**  
BERRIA  
**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA  
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)





## Ekintzailliendako diru-laguntzak

Astelehenian zabaldu eban Debegesak ekintzailliendako diru-laguntzak eskatzeko epia. Lanbideek 71.200 euro bideratuko ditte horretara eta gure eskualdian Debegesa arduratuko da diru-laguntzak bideratu eta banatuz. Laguntzak negozio-ideiaren bat dakeneri (ideia hori aztertu eta garatu deitzen) edo enpresa/negozio barrixa abian ipiñi nahi dabeneri emongo detsen. Horrekin batera, Debegesak formaziño eta trebakuntza programa zihetza preparau dau laguntzak jasotzen dittuenendako. Enpresa-idea garatzeko laguntza gehixen jota 1.000 eurokua izango da sustatzaille bakotzeko eta enpresa-proiektu barrixak martxan jartzekuak, barriz, gehixenez 1.500 eurokuak. Eskeraer azaruaren 9ra arte jasoko dittue. Informaziño gehixagorako debegesa.eus webgunian begiratu, ekintzaille@debegesa.eus helbidera idatzi edo Debegesara deittu (943820110, Vanesa Hortas).

## Gripiari aurre egiten

Astelehenian hasi zan gripiaren kontrako aurtengo kanpaiña eta osasun zentruetan dagoeneko hasi dira lehen txertoak ipintzen. Jon Darpon Jauriritzako Osasun sailburuak kanpaiñiaren aurkezpenian azaldu eban, aurtengo birusa aurreko urtietakuaren oso antzerakua izango da. Osakidetza gripiaren kontrako 380.000 txerto banatzen hasi da. Azaruaren 30era arte iraungo daben kanpaiñiak 1'2 millioi euroko kostua eukiko dau (3'15 eurokua txerto bakotzeko). Iaz 65 urtetik gorakuen %60k eta haurdun eguazen andrazkuen %22k hartu eben bakunia (2013an baiño lau bidar gehixago). Sailburuaren mezua argixa eta zuzena izan zan: *"Txertua hartzia oso inportantia da, segurua eta eraginkorra da eta, gaur egunian be, gaixotasun larri horrerri aurre egitteko dakagun prebenziño tresna nagusixa da"*.



Kanpaiña arrisku-taldietan daguazeneri (65 urtetik gorakueri, gaixo kronikueri, haurdun daguazeneri eta osasun arloko bihargiñeri) zuzenduta dago. Txertua ipintziak dakan garrantziarekin batera, higiene-ohitturak be zaindu bihar dirala azpimarratu eben ekitaldixan.



Sari irabazle guztiak euren tratamendurako-bonoekin. LEIRE ITURBE

## Dendarixen alkarteko sarixak

Eibarko Dendarixen Elkarteko txartelarekin irailian zeozer pagau ebenen artian gorputz eta aurpegirako 15 tratamendurakobono banatzeko zozketia egin eta gero, aurreko asteko bariakuan banatu zittuen premixuak. Irabazliak erretratuan ikusten dittuzuenak izan dira: Oihana Belar Zangitu (Farmalur), Maria Urigoen Irusta (Irritsa), M<sup>a</sup> Jesus Aizpuru Gabilondo (Chiquitin), M<sup>a</sup> Carmen Carballo Rivas (Txukuna), Arantxa Lasa Astola (Corral), Josefa Cruz Mancera (Bambi), Nerea Seoane Castaños (Capi), Eduardo Gabiola Lucena (Askasibar), Fidel Diez Lopez (Askasibar), Antonia Perez Guerrero (Ilgmar), M<sup>a</sup> Teresa Gomez Garcia (Oberena), Daria Rivero Perez (Mugika harategixa), Obdulia Vazquez Astarloa (Kiñu 2000), M<sup>a</sup> Luisa Zuloaga Garitaonandia (Mugika harategixa) eta Belen Egiguren Arrizabalaga (Edurne illeapaindegixa). Zorionak eta disfutau!

## Esperientzia Eskola martxan

Esperientzia Eskolakuak astelehenian hasi eben ikasturtia, Armerixa Eskolako Ikasle Ohien alkartiaren egoitzan. Uda aurretik klasiak amaittu zittuen 11. promozioñokueri eta Ikasten alkarteko gaiñontzeko kidieri harrerria egin eta gero, oin momentuan martxan daguazen jardueren inguruko azalpenak emon zittuen. Proiekturik barrixena, hain zuzen be, eskolatik urten daben

azken promozioñuaren eskutik abiatu da Teknoforum izenekua. Teknologixa barrixen inguruko lantaldia martxan dago eta nahi dabenak taldiarekin bat egitteko aukeria dauka. Bestela, Esperientzia Eskolako ikasturte barrirako izena emon dabenak urriaren 20xan hasiko dittue klasiak (martitzen, eguazten eta eguenetan, 09:30etik 12:30xera, Untzagako jubilau etxian).



Urriaren 20xan hasiko dittue klasiak ikasturtian izena emon dabenak.



## Mendaroko erizain-buruaren kaleratzia Legebiltzarrera

Hamar urtian biharrian jardun daben Nerea Larrañaga Debabarreneko Erizainen buruaren kaleratziak zeresan haundixa emoten dihardu egunotan. Mendaroko Ospitaleko lankidiak eta Debabarrena ESI (OSI Debabarrena) osatzen daben beste osasun zentruetako bihargiñak hasarratu eta kaleratziaren kontrako mobilizaziñuak egittera bultzatu dittu. Aste honetan, astelehenian ehun bat erizain eta erizain-laguntzaillek Mendaroko zuzendaritzaren parian alkarrataratzia egin eben eta, kaleratzia atzera botatzeko eskariarekin batera, erizaintza zerbitzuko 17 erizain aldamenekuak eta ikuskatzailliak, zerbitzua osatzen daben guztiak alkarrekin dimisiñua aurkeztu eben. Gauzak holan, Blanca Roncalek auzia Legebiltzarrera eruan eta Eduardo Maiz eskualdeko ESI-ko gerentia azalpenak emoteko agerraldixa egittia eskatuko dabela emon eban aditzera atzo bertan.



Mendaroko erizaiñak protesta egin zeben.

## autuan

### ESKURA PROZESUA AURRERA

Aurreko ekaiñaren 21ian "erabagixaren aruan" sartu giñala esan eta gero, erabagixa ahalbidetuko daben norabidian pauso bat aurrera emon dau Gure Esku Dago herri-ekimenak: "Aro barri horretan, lehen pausua 'Eskura' hausnarketia da eta, horrerri jarraituta, GED-k datozen hiru urtietan izango daben ekinbidia ziheztko dabe herritarrak". Herri galdeketak bideratzeko, Eibarren datorren asterako ekarpenak egitteko dokumentaziñua hónek tabernak ipiñiko dabe eskuragarri: Azkena (Amaña), Manuel (Urkizu), Ipurua taberna, Kultu, eta Depor. Hillaren 28rako ekarpenak eginda egotia aurreikusi dabe. Informaziño gehixagorako gureeskudago.eus/eskura helbidian begiratu.

## Azoka ekologiko jendetsua



Aurreko zapatuan Debabarreneko IV. Aste Ekologikuaren harira Urkizun egindako azoka ekologikuak jende asko erakarri eban atzera be. Salgai egon ziran produktuak erosteko ezeze, askok nekazaritza ekologikuaren inguruko informaziñua jasotzeko be aprobexau eban azokara egindako bisitia.



## San Wenzeslaoren omenez

Aurreko zapatuan edarto ospatu zittuen jaixak Wenzeslao Orbea kalekuak. Zapatu goizetik hasi eta gaberañño denetarik euki eben auzuan eta, eguraldixa lagun, primeran ibilli ziran danak, umiak eta nagusixak bardin-bardin.



Bazkarixa oso animatuta egon zan. LEIRE ITURBE

## Agur Sanmiguel jaixeri

Aurreko asteburuan ospatu zittuen Sanmiguel jaixak Aginagan. Zapatuan eta domekan, egun bixetan edarto pasau eben San Miguel ermittaren inguruan egindakuetan parte hartzera animau ziranak eta, jaixak agurtzeko, Aginagako Jai Batzordekuak zozketia egin eta hónetxek izan dira saridunak: lehelengo premixua (generoz betetako karretillia) 1.648 zenbakixak jasoko dau (ordezkua 1.655 da) eta bigarrena (hotel batian asteburu-pasa) 2.784 zenbakixak (ordezkua, 2.978).


Karta-jokuak jarraitzaille asko dittu Aginagan. LEIRE ITURBE





## asteko %40 datua

igo da andren langabezia-tasa Debabarrenian 2009tik hona; tarte berian gizonetzuenak %5 egin dau gora. Aste honetako datuen arabera, eskualdian 3.862 langabetu, aurreko hillian baiño 35 gitxiago dagoz. Langabetu gehixen, 2.144 zerbitzuen sektorekuak dira.



## Odol Emotailien urteko batzarra


Debagoiena eta Debabarrenako Odol Emotailiak urteko batzarra egingo dabe urriaren 24an eta, betiko moduan, batzarrarekin batera omenaldixa egingo detse urtietan odola emoten dabizeneri. Bazkarixa Unzaga Plaza hotelian izango da, baiña aurretik domiñak eta oroigarriak banatuko dittue. Aurtengo ekitaldixan omenduko dittuen eibartarrak Manuel Badiola Quintanilla, Alfredo Cobo Agirregomezkorta, Mikel Sarasua Solau, Eva Alberdi Arabaolaza eta Raquel Iruستا Alonso (25 bider emotiagaittik); Maite Miguel de Pedro, M. Nieves Ruiz de Arkaute Graciano eta Ana Ugarteburu Basterrika (40 aldiz); Jose Maria Bergara Urkidi, Angel Arturo Blanco Perez, Alfoso Idiaquez Garate, Fernando Larrañaga Telleria eta David Lopez Simon (50 aldiz); eta German Ereña Minguez, Manuel Perez Martinez eta Juan Cruz Zabala Irigoien (75 aldiz edo gehixago) dira. Bazkarixak 40 euro balixo dau.

...eta kitto! 15/X/9 • 945 zkia.

## Udalak 2.000 piezatik gorako fondoa jaso dau

Eibarko taillarretan egindako 2.000 piezatik gorako fondoa emon detsa Carlos Narbaiza zana-ren famelixiak Udalarari. Ego Ibarra batzordiak aditzera emon dabenez, "Udalbatzak, iraillaren 28xan egindako bilkuran onartu eta eskertu egin eban famelixiak herrixari emon eta Museuak kudeatuko daben Carlos Narbaiza eibartarrak bildutako pieza guztien dohaintza".

Carlos Narbaiza Durangon jaixo zan 1927ko azaruaren 4an. Gerra sasoiari, oindiok umia zala, Frantziara eruan eben beste hainbat umerekin batera. Handik bueltan, 13 urterekin hasi zan biharrian eta, diñuenez, "bihargin fiña izan zan, beti ikasteko prest". Jubilatxian, 1987xan Eibarko taillarretan egindako piezak batzen hasi zan, "Eustakio anaixaren laguntasun paregabiarakin". 1997xan hil zan egunera arte jardun eban pieza billa eta haren fondoa 2.000 piezatik gora osatzen dabe. Narbaizak bildutakuen artian era guztietako piezak dagoz: goldeak, antziñako



labadorak, aulki berezixak, giltzak, bizikletak, amuak, damaskinatuak, konpresoreak, laratzak, artaxizak..., danak gure herrixan egindakuak. Ego Ibarren arabera, "XX. mendeko Eibarko 100 enpresa baiño gehixago is-

latzen dira Narbaizak egindako lan ikusgarrixan: Super-Ego, Abelux, Alfa, Laster, GAC, Lomiño, El Casco, ABC...".

## Ondo Egindako Lana Armerixan

Armerixa Eskoliak aurrerantzian be "ondo egindako lana-ren" erreferente garbixa izaten segitzeko hartu daben konpromisuari jarraituta eta "mezu hori bere lan eta eragin esparruan berreskuratu, indartu eta zabaltzeko" asmuarekin, "Ondo Egindako Lana" programaren barruan saio barrixa antolatu dau urriaren 19rako. Arratsaldeko 19.00etatik aurrera Aitor Gorosabel (Su Ta Gar) eta Jagoba Arrasate (foball entrenadoria) alkarrekin egongo dira eskolako aretuan, euren ibilbide profesionalari buruz nahi daben guztiendako berba egitten. Saiua euskeraz izango da.



## 60 urtiak ospatzeko jaixa

1955ian jaixotakuak aurreko zapatuan alkartu ziran eguna alkarrekin jai-giruan emoteko. Beste batzuk egitten dabenaren bidetik, aurten 60 urte bete edo beteko daben atxakixarekin antolatutako bazkarixan eta bazkalosteko parrandan edarto ibilli ziran.





**KOLDO IZAGIRRE (idazlea):**

Pasaiaiko idazlea ikasturteko lehena izan da parte hartzen Harixa Emoten euskerazko irakurketa klubak liburu baten inguruan jarduteko antolatzen dituen saioetan. "Dumitru" gazteentzako nobela aztertu zuten martitzenean eta, hori dela-eta, berarekin izan ginen euskal literaturari buruzko arlo gutxi batzuen inguruan duen iritzia jakiteko. Euskal idazle oparo, goraiatu eta berritzaileenetakoa denak zintzo erantzun zigun eta, buelta gehiago edo gutxiagorekin, erantzunetan ez zen zurikerietan ibili. Bere idazlanetan literaturaren genero guztiak landu dituen autoreak gomendiorik ere eman zigun liburu baten aurrean gaudenerako: "Edozein dela ere, irakurri hamabosgarren orrialderaino. Ez bazaitu harrapatu, utzi eta hartu beste bat". Zalantzarik ez bere aholkua lagungarri izango zaigula.

## "Idazleok alde zurratik dakigu zer idatziko duten gure liburuari buruz"

– Zelan ikusten dituzu (gurean "Harixa Emoten" euskerazko irakurketa klubak egiten duen eran) antolatzen diren liburu baten inguruko saioak? Egileoi zenbateraino aportatzen dizuete?

Zer esango dut ba! Oso saio onak direla esan behar dut nahi eta nahi ez: onak liburuarentzat, onak idazlearentzat, onak irakurleentzat (espero dut). Publizitatea ematen zaio, oro har, literaturari. Erakundeak eta editorialek egin behar luketena egiten dute irakurketa klub horiek! Eta gero, idazleontzat, beti da interesgarria testua irakurleekin komentatu ahal izatea. Nik behintzat asko ikasten dut.

– "Dumitru" gazteentzako liburua hutsunerik betetzera dator? Adin horretako jendeak badu irakurtzera jotzeko aukera nahikorik?

Ez, ez! Ezin zaio eskatu liburu bati hutsunea betetzea. Hutsunerik baldin bada, liburu mordo batekin bete behar da. Gaiak ez dira liburu batekin ahitzen, zorionez. Gaztetxoak eta eskolak erosle potentzial handienak dira, eta liburu asko idazten da multzo horretarako. Gehiegi ere bai. Hori bai, gorabehera handiak dauka kalitatean, zoritxarrez.

– "Lorea Gernika (Andrazko bat)" aurten

kaleratutako lanaren inguruan, pozik zaudete izan dituen kritikekin? Zenbateraino jarraitzen duzu kritikarien lana?

Apur bat esajeratuz, esango nuke idazleok alde zurratik dakigula zer idatzi behar duen honek edo beste horrek gure liburuari buruz. Aski prebisiblea da. Kritikoek diotena baino interesgarriagoa da guretzat irakurleekin zuzenean jardutea.

– Hemendik gutxira Durangoko Azoka izango dugu berriro aipagai. Funtziorik ikusten al diozu gaur egun? Hasierakotik desberdinak?

Durangoko Azoka diozu... Erdararen Feria, ezta?

– Zer botatzen duzu faltan gaur egun euskeraz egiten den literaturan?

Luzerako lana, planifikazio apur bat, promozio egokiak, irakurketa sustatzea, analfabetismoa gainditzea, idazle gazteentzako laguntzak, sortzaile euskaldunon sindikatua...

**"Elebitasuna, zelako gezurra!  
Eta euskalgintza eskulotua  
dago subentzioekin"**

•••••

**"Durangoko Azoka...  
Erdararen Feria, ezta?"**

– Euskera dela-eta (hizkuntza txikiak edo gutxituak baztertzeko joera), zure burua behartuta ikusten duzu hizkuntzaren inguruan jardutera? Badago, bide horretatik, oraindik jorrazteko dagoen helduleku berririk?

Idazle guztiok lantzen dugu alderdi hori, zeharbidez. Baina batzuetan zuzenean landu behar izaten dugu, aldiro daukagulako hizkuntzaren gaineko irainak, mespretxuak, manipulazioak... Elebitasuna, zelako gezurra! Eta euskalgintza eskulotua dago subentzioekin. Itzela da egiteko dagoen lana, pasibitate handi batean murgilduak gaudelako.

– Zertan ari zara orain, baduzu proiektu literarioerik epe motzera? Zurea ez den zein liburu gomendatuko zeniguke?

Dumitruen jarraipena idazteko apunte mordoxka daukat; horixe amaitu nahi nuke aurten. Nirea ez den liburu bat gomendatzeko... Liburu pila dago nirea ez dena! Hartu edozein, irakurri hamabosgarren orrialderaino. Ez bazaitu harrapatu, utzi eta hartu beste bat. Irakurri hamabosgarren orrialderaino. Ez bazaitu harrapatu, utzi eta hartu beste bat... Horrela. Hogeia saio eginda batek ere ez bazaitu irakurtzen jarraitzeko harrapatzen, oso suertetxarrekoa zara.



Urriaren lehena Nagusixen Nazifoaarteko Eguna da eta, hori dala-eta, aurreko asteko eguen arratsaldian jubilauek euren eskaerak eta aldarrikapenak kalera etara zittuen. Untzagan, jubilauek etxiaren aldamenian egindako alkarrataratzian, ekitaldixaren amaieran irakorri eben manifestuak jasotakuari jarraituta, beste askotan egindakuen bidetik herriko jubilauek euren egunian "pensiño duiñaak" eskatu zittuen.



Aurreko asteko eguen arratsaldian jubilauek kalera urten ziran euren eskubidien alde. FELIX MORQUECHO

## Jubilauek pensiño duiñen alde borrokan

**P**ensiño duiñaak gitxieneko jubilauek 1.080 eurotik ez jaistia eta pensiño pobriak eragingo dittuan enpleguaren kontra. Hórretek idatzitta zittuen kartelak eskuan zekela alkarrataratu ziran gure herriko jubilauek aurreko astian, probintziako zazpi alkartek osatzen daben Gipuzkoako Nagusixen Alkartien

Plataformiak (PAMG-GHEP) egindako deixari erantzunez. Izan be, Felix Elkoroiribe Unzagako jubilauek etxeko presidentiak azaldu dabenez, "Urki eta Untzagako jubilauek etxiak Gipuzkoako jubilauek plataformako kidiak dira. Gure alkarte horrek, jubilauek beste alkarte batzurekin batera, Gipuzkoako Adinekoen Kontseilua ize-

neko beste plataforma bat osatzen dabe. Plataformiak gure probintziako 37.000 jubilauek eta 72 jubilauek-ete, geu tartian gara-la ordezkatzek ditte".

Gipuzkoako Nagusixen Alkartien Plataformaren barruan duguazek alkartiak Agijupens, Nagusilan, Duintasuna, Fevaas, Gepe, Helduak Adi eta Helduak Hitza dira. Zazpiak bat egitteko arrazoi nagusiña "holan alkartuta gure eskubidien aldeko indarrak batu eta dagokiguna errazago lortzia" dala diñue. Felix Elkoroiribek eta Manolo Gonzalezek, bixak alkarrek ordezkatzek ditte Eibarko jubilauek eta euren interesak plataforman.

### Jabi Sarasua Solaun

Urriaren 8an joan zen, 62 urte zituela



"Ez nau izutzen negu hurbilak, uda betezko beroan, dakidalako irauten duela orainak ere geroan. Arratsaldeko argi betera zentzu denak umiltzeak, amets betezko loa baitakar behin betirako hiltzeak".

ETXEKOAK



### ROSA DELGADO HERNANDEZ

Urriaren 3an hil zen, 95 urterekin

"Zure alaitasuna eta bizipoza beti gurekin izango dira"

ZURE FAMILIA

FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA GURE NAHIGABEAN LAGUNDU DIGUZUEN GUZTIOI.





Urriaren 1-aren harira, Eibarren ezeze, Untzagara etaratako eskaerak eta aldarrikapenak beste herri batzuetako kalietan be entzun ziran eta, Gipuzkoako Nagusien Alkartien Plataformiak deittuta, probintzia maillako mobilizaziñua egin zan Donostian aurreko zapatuan. Aldarrikapen zihetzaguen gaiñetik, mobilizaziño guztietan indar berezixarekin entzun dan eskaera orokorra "Euskadin pensiño bakarra pobrezia mugatik behera ez egotia" izan zan. Euskal Autonomia Erkidegutan muga hori 1.080 euroak ezartzen dabe.

Pensiñuen inguruan gaur egun daguan egoeria zelakua dan irudikatzeke, daturik aittagarrixenak holan laburbiltzen dittue jubilauek: "Euskadin uztaileko batzabes-

teko pensiñua 1.099 eurokua da. Beraz, eta datu horrek agerixan lagatzen dabenez, kasu gehixenetan jubilauek jasotzen dittuen pensiñuak hortik beherakuak dira. Gauzak holan, nagusi asko pobrezian bizi bihar dira nahitaez, holako pensiño bajuak jasota beste aukerarik ez dake eta".

#### Andrazkuak okerrago

Eta egoeria okerragua da andrazkuen artian: "Jubilaziño kontuetan andrazkuak bizi dabena ezin leike onartu, gi-



Erreterian be pensiñuen aldeko manifestaziñua egin zeben Gipuzkoako Helduen Elkartien Plataformak deittuta.

## Zenbakittan

### DATU ESANGURATSU BATZUK

- 2014an 65 urtetik gorako 449.867 andra-gizon eguzen EAE-n, **populaziño osuaren %20'7**.
- Hórretatik gehixenak, **260.346 andrazkuak** ziran eta **189.521 gizonak**.
- 2015eko uztaillian EAE-n pensio sarixaren **batezbestekua 1.099 eurokua** izan zan.
- **Eibarren 7.165 biztanle 65 urtetik gorakuak** dira eta populaziño osuaren **%26** osatzen dabe.
- Populaziñua zahartziarekin batera, pensiño kopuruak gora egitten dau. lazko eta aurtengo datuak alderatuta, kopuru horrek %1'20 euroko igoeria euki dau. 2015eko abuztuan Gipuzkoan 180.224 pensiño ziran pagau biharrekuak, iaz baiño 2.148 gehixago.
- **Gipuzkoan oin dala zazpi urte baiño 17.544 pensionista gehixago dagoz gaur egunian.**

zonezkuak baiño %27 gitxiago kobratzen dabe eta. Gizona alargunduz gero, pensiño osua, %100 emoten detse, baiña alargundutakua andrazkua danian pensiñua zuzenian baju egitten detse. Horrelakuak ezin leikez onartu. Gaiñera, kontuan izan bihar dogu gure sasoiko andra gehixenak ezkontziarekin batera laga zetsela etxetik kanpora biharra egittiari, baiña horrek ez dau esan nahi ez dabela biharrik egin, etxe barruan gogotik jardun dabe kotizau ez arren".

Espaiñiak siñatutako Europako Karta Sozialak jasotzen dabenez, gitxieneko soldatia batzabesteko soldatia garbixaren %60-xaren parian egon bihar da. Horri kasu egitten badetsagu, Euskadin gitxieneko soldatia hori 1.080 eurokua (12 paga) litzake eta hori da, hain zuzen be, jubilauek lortu nahi dabena.

Mind Body Emotion

ADIMIENA ERA INBERTILARRI ETA ERALINKORREAN LARATZEKO NE ZIKETA METODO INTEGRALA

ESKOLA ERRENDIMENDUA  
ETA GARAPEN PERTSONALA HOBETZEN DU

Izen emate epea irekita 2015-2016 ikasturtea

ERRESERBATU ZURE LEKUA!

Juan Guisasaola 16, Eibar  
Izen ematea: eibar@nenoos.es • Tel. 688 802 705 • www.nenoos.es

**CAPI** Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547

ESTETIKA ZENTROA ETA LURRINDEGIA

RAPID FIT&WELL

Ipini zaitetz sasoi onean  
astero 20 minutu eginez

5 saioko bonoa  
135€

10 saioko bonoa  
250€



# TEEN AJEAK

**ATZEGI adimen urriko pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarteak aurtengo sentsibilizazio kanpainari hasiera eman dio aste honetan. "Ezetz asmatu nolakoa den nire bizitza?" goiburu, kanpaina honek gizartean adimen urritasunaren inguruan dauden aurreiritziekin apurtzea eta pertsona bakoitzaren bizimoduaren inguruko irudi erreala goa eskaintzea du helburu. Lucia Juarez Simon, 22 urteko eibartarra, kanpainaren protagonista da Sergio izeneko beste mutil batekin batera.**

**- Nolakoa da zure eguneroko bizimodua?**

Goizez lanera joaten naiz Eibarko Mankomunitatera, han praktikak egiten ditut. Txikitatik gustatu zait bulegari-lana. Horretaz gain, pianoko klaseetara joaten naiz astean behin. Pianoa asko gustatzen zait. Eta Lagun Taldearekin astean hiru aldiz elkartzen naiz. Ostiralean, adibidez, mahai jokoak eta dantzak egiten ditugu.

**- Eta asteburuan zer nolako planak izaten dituzu?**

Larunbatetan Txolartera joaten naiz. Aisialdi taldea da, eta gauza asko egiten ditugu: irteerak, jaiak, tailerrak... Txolarrekoekin egoten naiz arratsaldean, eta gauean batzuk Anardira joaten gara afaltzera. 6 edo 7 lagun izaten gara normalean eta urtebetetzeak Telepizzan ospatzen ditugu. Aurtengo mutil berri bat gehitu zaigu, eta Malen eta Mireia Mutriku eta Mendarokoak direnez, normalean, urtebetetzeetara bakarrik etortzen dira.

**- Beraz, kalean ibiltzea gustatzen zaizu...**

Bai, eta nire herrian antolatzen diren ekitaldi eta jai guztietan parte hartzea gogoko

dut. San Juanetako Danborrardan parte hartzen dut, Santa Zezilian, Sagardo egunean ere egon nintzen, Coliseoko musika-emanaldietara joaren naiz... Skapital Cityren kontzertuetara joatea gustatzen zait eta Ustekabe txarangaren jarraitzaile sutsua naiz. Oso mutil guapoak dira!!! Eibar futbol taldearen partidua daudenean kalean egoten den giroaz gozatzen dut. Laredon Mendilibar ezagutu genuen.

**- Oso neska polita zara eta kanpainako karteletan eta bideoan benetan ederra azaltzen zara. Zeure burua zaintzea gustatzen zaizu?**

Larunbatetan makilatu egiten naiz kalera irtetzeko. Eta gaur ere bai apurtxo bat makilatu naiz zuekin egon eta gero ETBkoekin gelditu naizelako beste elkarrizketa bat egiteko. Aurretik moda desfileak ere egin ditut Syndrome de Down Fundaziokoekin, horietako bat Euskaldunan. Aurtengo kanpainako argazkiak Astigarragan egin genituen, estudio batean. Eta orain kartelak kalean, markesinetan eta leku guztietan ikusiko dira. Jendeak ni nolakoa naizen ikustea nahi dut.



KANPAINAREN BERRI ZEHATZAGOA IZATEKO: [atzegi.org/horrelakoadanirebizitza](http://atzegi.org/horrelakoadanirebizitza)

Lucia Juarez Simon  
**"Jendeak ni nolakoa naizen ikustea nahi dut"**

**URRIAK 17** LARUNBATA EIBAR

14:00etan Untzaga Plazan

**II COMIDA SOLIDARIA**

Jana ez da txantxa

Umeendako sukalde-tailerra (doan) 12:00etan Mireia Alonso Eibarko gastronomoarekin

**PREZIOA: 10€ (ume, jubilatu eta langabetuak, 7€)**

Ticket-ak eta 0 platoak: -KULTU -KOSKOR -GURIDI -VILLALBA -KONTENT -DEPOR	Laguntzaileak: etab Eibarko Elkarte Gastronomikoak	Antolatzaileak: 
---	---	---------------------

**Isasi, 31** Egutegia 06.00-22.00

**943 207 737**

Etorri!  
 Zure etxian egongo zara!!

Astelehenetik ostegunera  
**PINTXO-POTEA!**

**KAFETEGIA OKINDEGIA**

**SUTLINDO**



## Abian da Gaztezulo Bideo Lehiaketa

Seigarrenez abiatu dute Gaztezulo Bideo Lehiaketa, 16 urteko gorako gazteentzat. Betebeharrak oso sinpleak dira: bideoak minutu bat eta hiru minutu arteko iraupena izatea eta edukiak (hitzak, musika, intertítuloak...) euskaraz egotea. Hortik aurrera, egilearen edo egileen sormenerako ahalmenak ipiniko du muga. Antolatzailerak dioten moduan, "eragin buruari, pentsatu zer den gehien maite duzuna, zer salatu nahi duzun edota zerk eragiten dizun egonezina, bideo formatuan errotatu eta bidali-guztu. Gaia zure kontu!".

Pertsona edo talde bako-



tzak nahi beste lan bidali ditzake eta azaroaren 10era bitartean egongo da zabalik bideoak entregatzeko epea. Bideo artxiboak WeTransfer zerbitzua erabilita komunikazioa@gaztezulo.eus helbidera bidali behar dira eta, horrekin batera, gaztezulo.eus webguru-

neko 'Bideo Lehiaketa' atalean topatuko duzuen formularioa bete beharko duzue. Formulario horretan, besteak beste, taldearen izena, taldekideen izen-abizenak, herria, kontakua, bideoaren izenburua eta deskribapen labur bat zehaztu beharko dira. Lehiaketari bu-

ruko informazio zehatzagoa ere aipatutako webgunean eskuratu daiteke.

Behin lan guztiak jasota, hiru adituk osatutako epaimahaia beharrezan hasiko da eta irabazleak azaro amaieran emango dituzte jakitera. Irabazleak 1.200 euroko saria eskuratuko du eta bigarrenari, berriz, 300 euroko saria emango diote. Gainera, ikusleek gehien gustatzen zaien bideoaren aldeko botoa emateko aukera izango dute eta bozka gehien jasotzen dituen lanaren egileak Ikuslearen Saria jasoko du. Animatu eta parte hartu, sarietako bat jaso dezakezue eta!

## Euskal musika taldeentzako lehiaketa martxan

Azkue Fundazioak "euskal musika sustatu eta talde berriei hauspoa emateko asmoz" sortutako Banden Lehiaren zazpi-garren edizioa martxan dago. Lehiaketa euskaraz jotzen duten talde guztientzat dago zabalik eta fase bi dauzka. Lehenengoan sailkapena internet bidez egingo da eta, parte hartzeko, ezer baino lehen [www.bandabeat.eus](http://www.bandabeat.eus) atarian taldearen profila sortu behar da eta, jarraian, taldearen musika argitaratu. "Banden Lehia Parte hartu!" dioten tokian botoia sakatu eta gero, webgune horretan, "Bandak" atalean taldea agertu eta musika zuzenean entzuteko

aukera izango da. Behin hori eginda, publikoak internet bidez bozkatuko du. Beraz, taldeek ezagutzera eman beharko dute lehiaketan parte hartzen ari direla eta euren aldeko botoak eskatu beharko dituzte. Fase horretan boto gehien lortzen duen taldea finalerako sailkatuko da automatikoki. Bestalde, epaimahaia beste hiru talde aukeratuko ditu. Lau talde finalistak zuzeneko ekitaldian arituko dira finalaren egunean (finala Bilborock-en ospatuko da, azaroaren 27an) eta egun horretan bertan erabakiko da zein izango den Banden Lehia 2015eko talde irabazlea.



Urtetik urtera sariak hobetzen joan direla azpimarratu dute antolatzailerak eta gaur egun hauek dira banatuko dituzten sariak: irabazleak Baga-Biga diskoetxearekin diskoa ekoizteaz gain 2016eko Bilbao BBK Live jaialdian eta Bartzelonako Euskal Herria Sona

jaialdian jotzeko aukera izango du. Horrekin batera, bere kanta lehiaketako 2015eko edizio-ko disko bilduma oroigarrian jasoko dute. Eta hiru talde finalistak ere Azkue Fundazioak osatzen eta ekoizten duen bilduma horretan jasoko dituzte.

## "Barruko sortzailea" esnatu zuten Uni Eibar-Ermua BHI-ean



Jardunaldietako parte-hartzaileek sormena landu zuten.

Pentsamendu sortzailea sustatzeko bi topaketa egin ziren Uni Eibar-Ermua BHI-ean irailaren 25ean eta urriaren 2an. Ermuko Udalaren Izarra Fundazioaren laguntzaz, Sormena proiektuaren esparruan egin diren jardunaldiok Izinker esperientzia handiko enpresaren zuzendaritzak dinamizatu zituen eta lan-saioetan ikasleek sormenaren garrantziaren eta lan munduko

berrikuntzaren gainean sentsibilizatu ziren. Baliozko ideiak lantzeko pentsamendu sortzailea eta ideiak eta berrikuntza-proiektuak sortzeko jarraitzeko prozesua nola landu ikasi zuten parte-hartzaileek eta, jardunaldien azken helburu bezala, ikasleek euren sormena lantzeko aukera izan zuten, errealitatean eta baliozko negozio ideiak sortzen zituzten neurrian.





**Amaia Furundarena eta Jon Garaizabal:**

*Ikasturtea berrikuntzekin hasi dute MOGEL ISASI ikastetxeko DBH-ko ikasleek. Goizean, eskola orduak izango dituzte ikasleek, eta arratsaldean, berriz, errefortzuzko klaseak eta kanpoko ekintzak. Mogel Isasik bat egin du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan barneko antolakuntza berritzatzeko "Hauspoa" proiektuarekin. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak bultzatutako "Hauspoa" egitasmoak orain dela 3 urte hasi zuen bere ibilbidea EAE-ko 13 instituturen parte-hartzearekin, eta emaitza onak ikusita, 2015-16 ikasturtean beste 15 ikastetxe animatu dira proiektua aurrera eramatera, horien artean Eibarko Mogel Isasi BHI.*

## **"Ez gara bakarrik arlo akademikoan gelditu, zaletasunak ere lantzen ditugu"**

**– Zertan datza "Hauspoa" proiektuari jarraituz martxan jarri duzuen antolaketa modu berria?**

Lehen egiten genituen ordu berdinetan gauza desberdinak egiten ditugu. Jendeak pentsatzen du hau irakasleok egiten dugun montaia bat dela lan gutxiago egiteko, baina ez da horrela. Denbora berdinean eskaintza zabaldu egiten dugu. 14:30ak arte jarduera arrunta egiten dugu eta bazkaldu ondoren, 15:00etatik 16:30era bitartean, alde batetik indartzeak edo errefortzuzkoak eta, bestetik, tailerrak daude. "Hauspoa"ren lehenengo helburua suspentsosak murriztea da. Horretaz gain, ikasleen autonomia eta gaitasunak garatu nahi ditugu, eta hor sartzen dira zaletasunak. Iaz ikasleekin harremanetan jarri ginen eta eurek zituzten nahiekin tailer dexente sortzea lortu dugu. Ez da erraza izan hau guztia martxan jartzea, antolaketa modu berri honek guztia hankaz gora jartzen baitu. Guztia ondo antolatzeko lauko taldea sortu dugu (Amaia Furundarena, Amaia Urkidi, Alazne Oiarzabal eta Jon Garaizabalek osatutako taldea). Bazkal ordua kudeatzea ere nahiko konplexua izaten da. Ordu erdi

izaten dute bazkaltzeko: batzuk inguruan bizi dira eta etxera joaten dira bazkaltzera; beste batzuk jantokian bazkaltzen dute eta beste batzuk, tailerra daukaten egun horretan, nahigo izate dute bokata etxetik ekartzea.

**– Nolako tailerrak eskaintzen dituzue eta zeintzuk dituzte ikasleek gustokoen?**

Ikasleek nahi zutena kontutan hartu dugu eta baita irakasleen gaitasuna. Arrakasta handiago izan duten tailerren artean sukaldaritza, yoga, antzerkigintza, IT txartelak eta mekanografia daude. Sukaldaritzak izan duen harrera ikusita, hurrengo hiruhilabetekoan gozogintza tailer bat antolatzea pentsatu dugu. Leku faltagatik kanpoan gelditu diren ikasleek hurrengo hiru hilabeteetan lehenetasuna izango dute. Ikasleen erantzuna ikusi ahala, gauzak antolatzen eta eskaintzen joango gara. 4. mailako ikasleak irakasle bihurtu dira eta, esate baterako, zumba eskainiko dute. Ikasle ohi baten laguntza ere badaukagu makilaia tailerra emateko. Ikasleen erantzuna oso ona izan da.

**– Indartzeak edo errefortzuzkoak derrigorrezkoak dira? Nolako onurak ditu proiektu berriak?**



**Hasierak ez dira errezak izaten, eta Mogel Isasi BHI-n ilusioz eta urduri ekin diote ikasturte honetan izango duten antolaketa modu berriari.**

Indartzeak edo errefortzuzkoak dira. Iaz suspentsoak izan zituztenak derrigorritu daude indartze-saioterara etortzera. Tailerrak, berriz, borondatezkoak dira, ez da inor behartzen tailerrak egitera. Dena dela, ikasle eta irakasleen konpromisoaz gain, gurasoena ere ezinbestekoa da horrelako proiektu batean. Gune akademiko bat gune zibikoa bihurtu dugu eta honek onura asko ditu. Ez gara bakarrik arlo akademikoan gelditu, zaletasunak ere lantzen ditugu. Gainera, konturatu gabe, gure arteko harremanak lantzen ditugu: ikasleen arteko harremanak eta baita ikasle-irakasleen artekoak ere. Etxeko lanen txokoa ere badaukagu. Askok etxeko lanak egiten gelditzen dira, eta amai-

tzen dutenean beste lagundu edo joan egiten dira.

**– Beraz, ilusioarekin hasi duzue ikasturtea...**

Gauza berri guztiek ematen dizute beldurra eta urdurasuna, baina ideiak oso garbi ditugu. Nahiz eta eskola komunitate guztiaren laguntza eta inplikazio behar izan, hau irakaslegoaren lanean oinarritzen da. Zorionez, momentuan klaustroaren %90tik gora dago inplikaturik proiektuan eta ikastetxea ondo antolatuta dago. Proiektuaren arrakasta ikasleak pozik egotean datza. Guraso Elkarteak ere lehenengo momentutik ados egon da proiektu honekin. Etorkizunean gurasoak proiektu honetan inplikatzeko nahi dugu: zaletasunen bat izan ezker, gurasoek ere eman ditzateke tailerrak.



# Mundialak zarete

argazkiak: LEIRE ITURBE



Argazkian eguerdiko lantaldea; arratsaldean parte hartu zutenak falta dira.

Arrakastatsua izan zen ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik joan den zapatuan Untzagan izan genuen Sagardo Eguna. Goizez eta arratsaldez jende mordoak dastatu zuen Gorenak-eko 13 sagardogileek ekarritako sagardoa. Arrakasta, zalantzarik gabe, denona da: bertan giro ederrean egon zineten guztiona, eta egun osoan lanean jardun zenuten 670 kideek osatutako lan-taldearena. Mundialak zarete! Mila esker! Mila esker Gorenak Sagardotegiei; Guridi eta Koskor tabernei; Ondo Nai, Peña Txinbera eta Botellin elkarte gastronomikoei; eta Emankor eta El Canton de la Avenidari.













# SAGARDO EGUNEKO Selfi lehiaketa

## IRABAZLEA:



**MIKEL SOLAS**



## 2016ko Euskal Herriko Itzulia Eibarren amaitzeko bidean

Lehendik ere Itzulia Eibarren amaitzeko ideia hori behin baino gehiagotan aipatu bada, badirudi gertu dagoela asmo hori betetzeko unea. Euskal Herriko Itzulia antolatzen duen Euskadi Txirrindularitza Antolaketak-eko gure herriko ordzkariek baieztatu digutenez, Euskal Herriko Itzuliaren 56. edizioan Eibarrek ohikoa baino protagonismo handiagoa izan dezake *"Itzulia hemen amaitzeko lanak aurrera jarraitzen dutelako, Udala ere prest baitago horren alde egiteko"*. 2016ko apirilaren 4tik 9ra arte egingo den lasterketa, ohikoa denez, astelehenean hasi eta zapatuan amaituko da. Azken urteotan egueneko etapa amaitzen zen Arraten eta hurrengo, barixakukoa, Eibartik irtetzen; orainoan,



baina, Markina-Xemeinen hasiko den Itzuliak *"gauzak bide horretatik badoaz, Arrateko gainan izango du barixakuko etaparen amaiera, hurrengo eguneko azken etapako erlojuz kontrakoa Eibarren egiteko"*. Zapatu arratsaldeko buruz-buruko horrek ibilbide berezia eta ikusgarria izango du: *"Erlojuz kontrakoa Azitainetik eta Orbetik gora egiteko asmoa dugu; hori bai, helmuga ez da Arraten izango, handik jaitsi eta hiri erdian kokatzeko asmoa dugulako, Toribio Etxebarria kalean esaterako"*. Asmoak betetzen badira, aukera polita izango du te herriko eta inguruko zaletuek munduko txirrindulari onenen lana inoiz baino gertuagotik ikusteko.

## Bikeibarrekoen denboraldiko azken irteera

Bikeibar taldekoek denboraldiari agur esan zioten aurreko zapatuan Nafarroako iparraldeko mendietatik egindako txangoarekin: Eratsun, Ezkurra eta Leitza inguruak zeharkatu zituzten, *"pagadi, zelai eta bidexkak ezagutzeko aukera"* eman zien *"44 kilometrotako ibilbide zoragarriei esker"*. Hemendik aurrera datorren urterako ibilbideak prestatzeari ekingo diote *"apiriletik aurrera hilean behin gure herritik kanpora beste lurralde batzuetako bi-deak eta mendiak ezagutzen jarraitzeko"*.



## Concepto Egile irabazle areto-foballean

Debabarreneko talde nagusiak 4-6 irabazi zuen Segorberen kantxan eta, emaitza horrekin, sailkapeneko seigarren postuan kokatu da. Yahyak bi gol sartu zituen eta bana lortu zuten Trevik, Ikerrek, Gabik eta Marcosek. Aldageletara bana berdinduta erretiratu ziren talde biak, baina hortik aurrera nagusitasuna erakutsi zuen Concepto Egilek. Bihar izango dute Elgoibarkoek hurrengo partidua, etxean, IMHko kiroldegi berrian, arratsaldeko 18.00etan hasiko den Fuenmayoren aurkako partiduan.

**Nafarroa**  
**ELIZONDON**  
**Oinez**

**urriaren 18an**  
**denok Baztanerat!**

**12 eurotan**  
**Ego-Gainetik**  
**AUTOBUS**

**Buelta:**  
**19.00etan**

**Irteera:**  
**08.30etan**

**zerBITZUA**

**J.A. MOGEL-eko GURASOEN ELKARTEA** ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

**HAMABORTZ, AMA BAT**  
NAFARROA OINEZ 2016 BAZTAN

**fM** Funeraria·Ehortzetxe  
**Mugica**

**EIBAR**  
Beilatokia  
Funeuskadi Eibar:  
Otaola, 27

**ELGOIBAR**  
Beilatokia:  
SIGMA Industrialdea  
(Olasoko hilerriaren ondoan)

**Bulegoa Eibarko**  
**erdialdean**

**24 orduko zerbitzu iraunkorra**  
**943 20 19 51** [www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**





## Brontzeko domina bi Ipuruako gimnasten estreinaldian

Aurreko zapatuan Donostian jokatutako Izar leku Torneoan Ipuruako harrobiko bi taldek lortu zuten podiumera igotzea, hirugarren mailara kasu bietan. Oinarrizko kadete mailako boskoteak (Elene Varela, Nahia Arguiz, Elena Sudupe, Malen Txurruka eta Alaitz Aranbarrak osatutakoa) bost pelotekin egindako muntaia aurkeztu zuen eta, lehen txandan bigarren postua eta bigarrenen hirugarrena lortuta, hirugarren amaitu zuen, Tolosa eta Vallecaesen atzetik. Oinarrizko alebin mailako taldea osatzen duten zazpi gimnastek (Lur Aranburu, Indira del Pino, Ainhoa Bizkarra, June Heredero, Izaro Altuna, Enara Bilbao eta Maddi Teran) postu berean amaitu zuten hauek ere

bost pelotekin egindako ariketaren ondoren. Talde bi horiek gogor dihardute lanean ikasturte hasiera honetan azaroaren 7-8ko asteburuan Gasteizen jokatuko den Euskalgym-ari eta 19tik 22ra Zaragozan lehiatuko den Taldeakako Espainiako txapelketari begira. Aurten 12 izango dira Espainiako txapelketa horretara joango diren Ipuruako ordezkariak eta, horrez gain, Eibarko klubak benjaminetatik hasi eta seniorretaraino maila guztietan aurkeztuko dituzten taldeak.

Bestalde, azaroaren 14an Ipurua Klubak antolatzen duen San Andres Torneoaren 17. edizioa jokatuko da eta, dagoeneko, hainbat taldek eman dute izena bertan parte hartzeko.

## Somos Eibar bikain Egian eta Haritza galtzaile gol batengatik

Ereintzarekin etxean berdindu eta gero, nagusitasuna erakutsi zuen Eibar Eskubaloiko lehen taldeak Donostiako Egian jokatutako partiduan (25-33). Asier Larrañaga, Lander Casado eta Aitor Telletxea, seinagolekin, izan ziren gehien asmatu zutenak ate aurrean; Ander Ballesteros atezainak, berriz, lan ikusgarria egin zuen, batez ere bigarren zatian. Oraindik bi jardunaldi bakarrik jokatuko dira ere estatuko I. mailan, Uhartea eta Tolosa aurreikusten dira talde indartsuen modura, batez ere aurkariak zelan egurtu dituzten erreparatzen badiogu:

eurak dira 4 punturekin dauden bakarrak. Atzetik parekotasun handia adierazten dute orain arte izandako berdinketak (gauza ez hain erraza hainbeste gol izaten den modalitate honetan) eta eibartarrekin berdinduta ditugu Bidasoa-Irun, Beti Onak eta Trapagaran.

Eibar Eskubaloiaeren harrobiko emaitzei begira, Haritzak bere debutean 21-20 galdu zuen Elgoibar-ko Gabazen aurka; hala ere, buruan egoteko lehiarikustea espero daiteke, taldeko hiru jokalaririk lehen taldearekin joan zirelako Egia.



## Hiru talde aurretik foball zaletuan

Lau partiduak irabazi dituzten Azkena Adahi eta Durangorekin batera, Esmorga (hiru irabazi eta bestea berdindu du) eta Garajes Garcia.com (bi irabazi eta beste biak berdindu) dira galdu barik jarraitzen duten taldeak. Emaitza horiek aurreneko hirurek ihes egiten hasia



*laz Kopa irabazi zuen Esmorga hirugarren postuan dago.*

ahalbidetu dute datorren asteburuan, Pilarikako zubia dela-eta, atsedena hartuko duen Ligako txapelketan; Garajes Garcia.com dugu, bestalde, atzetik datozenekin osatutako multzoaren buru. Saillkapeneko behe aldean geratu dira Bar Areto eta Fontaneria Mujika, biak ere lau partiduak galduta eta puntu barik. Azken asteburuko izenik aipatzekotan, Kepa nabarmenduko genuke, berak sartu baitzituen Azkena Adahiren zazpi goletatik lau.

## Eibar Rugby Taldea taldea burua jaso ezinik

Azken urteotako denboraldi hasiera kaskarrena egin du Hierros Anetxe seniorren taldeak Ohorezko B mailan eta, aurreko asteburuan Zarautz liderrarekin 0-73 galdu eta gero, oraingoran 36-0 galdu zuten Real Oviedo Rugbyren kantuan. Hiru jardunaldi jokatuta, eibartarrak azken postuan daude, 0 punturekin, eta partidu gutxiago jokatuta dituzten El Salvador B, Uribealdea eta Entrepinares B taldeekin berdinduta.



## Katu-Kale ez da mailari eustearekin konformatzen

Orain arte jokaturako partidu guztiak irabazita, Eibarko saskibaloitzaileak aurrerapausu handia egin du denboraldia hasi aurretik finkaturako helburua betetzeko orduan; horrela, maila berriari eustea gero eta gertuago du Katu-Kalek. Ipuruan jokaturako azken jardunaldian irabazi bakarrik ez, egurtu ere egin zuen Allerru SBT (63-44). Lezotarrek ezin izan zieten hasieratik aurre egin eibartarrei eta, atsedenaldirako, azken hauek 13 puntutako aldea zuten markagailuan (36-23). Hirugarren laurdenean "beltzeko gizonek" abiadura ipini zioten lehiari eta baita 20 puntuko aldea eskuratu, partidu amaieran tarte horri eusteko. Anderson, 17 punturekin, eta Azurmendi, 15ekin, izan ziren Eibarko saskiratzaile onenak.



## Abiatu da Euskadiko Hiru-txirlo txapelketa

Aurreko zapatuan hasita, hilabete honetako azken egunean amaituko da lau jardunaldi izango dituen Euskadiko XXVI. Hiru-Txirlo txapelketa. Lasturren izandako jardunaldiaren ondoren atsedena hartuko du txapelketak bihar eta Bolibarko Iruzubietan (hilaren 17an), Azkoitiko Floreagan (24an) eta Markinako Barinagan (31n) izango ditu hurrengo hitzorduak. Jardunaldi guztiak 17.00etan hasiko dira.

Deportiboko mendizaleak Txarlazon.  
PERIKO IRIONDO



## Deporreko mendizaleak Txarlazon izan ziren

Aurreko zapatuan 29 laguneko taldeak Eibarko Klub Deportiboko Mendiko batzordeak antolatutako txangoan hartu zuen parte. 22 kilometroko ibilbidean, Delikatik hasi eta Orduñarako bidea egin zuten, tartean Txarlazo gaina (933 metro) zapalduta, bertan dagoen Antiguako Amabirjinari bisita egin ez. Eguraldi ederra izan zuten eta ez zuten ahaztu Bagate mendia ere bisitatzea.

Bestalde, ibilbide guztietan

parte hartzen duen Periko Iriondok beste ikus-entzunezko bat eskainiko du datorren eguaztenean, hilaren 14an, Klub Deportiboan 19.30-etik aurrera. Esloveniara egindako irteera eta hango irudiak erakutsiko ditu. Eta barixakuan, hilaren 16an, Mendi Batzorde horrek antolatuko duen Jardunaldi Mikologikoen barruan, "onddo aluzinogenoei" buruzko hitzaldia eskainiko dute Portalean.

Zure enpresa erakusteko  
leku aparta

# GIDA

## KOMERTZIALA 2016

Eibarko ETXE GUZTIETAN eta herriko komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe, osasun-zentro... guztietan banatzen da



publizitatea@etakitto.eus  
943 20 67 76  
www.etakitto.eus







laz lehenengoz egin zen "Jana ez da txantxa" bazkari solidarioak izan zuen harrera onarekin animatuta, aurten errepikatzea erabaki dute antolatzaileek, Aldatzen, Egoaizia eta Alboan Gobernu Kanpoko Erakundeek. Urriaren 17an (zapatuan) 14.00etan hasiko den bazkarirako txartelak dagoeneko salgai daude eta batutako dirua Peruko nekazariei laguntzeko izango da. Egoaziako Gloria Morak azaldu dizkigu ekitaldiren nondik norakoak.

## GLORIA MORA (Egoaizia): "Espero dugu iazko arrakasta errepikatzea"

### - Nolatan animatu zarete bazkaria bigarrenaz antolatzera?

Aurten ere ekitaldi arrakastatsua izateko esperantzarekin animatu gara errepikatzea. Aurreikuspen guztiak gaindituta, iaz 400 lagun batzea lortu genuen eta, gainera, ekitaldian beste 60 bat lagunek gurekin batera jardun zuen boluntario, oso esperientzia polita izan zen. Batu genituen 4.800 euroak Peruko nekazariei, Piurako Kakao Ekoizle Txikien Elkarteari laguntzeko erabili dira, kakao-aleak zuritzeko makina erosi dute. Apirilean han egon ginen eta, ikusi ahal izan genuenez, makinari esker nekazarien lana asko arindu eta prozesua bera asko hobetu da. Badira lau urte Perun nekazarien komunitate horren garapenean laguntzeko Eusko Jaurlaritzak finantziatzen duen proiektuan lanean hasi ginela eta aurten batzen den dirua ere hango nekazariei emango diegu, kakao deribatuen ekoizpena erretzeko dien makina erosi dezaten.

### - Nolako izango da aurtengo ekitaldia?

Iazkoaren bidetik, bazkarirako bidezko merkataritzako osagaiak erabiliko dira: Mireia Alonso sukaldariak prestatuko du arroza, Perutik etorritako norbaiten laguntzarekin. Ekitaldiak elkarte gastronomikoen, Auzolanek eta beste elkarte eta erakunde batzuen laguntza dauka eta horiei guztiei eskerrak eman nahi diegu, bazkaria antolatzeko posible egiteagatik. Bestalde, arroza prestatzeaz gain Mireiak umeentzako sukaldaritzako taillerra ere antolatu du, parte hartzeko nahikoa izango da Untzaga-ra 12.00etarako joatea.

### - Non eros daitezke txartelak?

Kultu, Koskor, Kontent, Guridi eta Depor tabernetan, Villalba supermerkatuan eta Aldatze ikastetxean ipini ditugu salgai, 10 eurotan (7 eurotan ume, jubilatu eta langabetuentzat). Aurten, gainera, "Plato Zero" delakoarekin, txartela erosi eta bazkarira joan barik ere laguntzeko aukera dauka jendeak.



Iñaki Alegriak eta Gorka Azkunek eman zituzten ikasturte hasierako hitzaldiak.



## UEU-ren ikasturte hasiera

Aurreko asteko eguenean zabaldu zuen 2015/2016 ikasturtea Udako Euskal Unibertsitateak bere ikastetxe nagusian, Markeskua jauregian. Lankidetzaz sustatzeko deia eginez ekin zioten kurtso berriari, "goi-mailako euskarazko kalitatezko eskaintza emate aldera". Iñaki Alegria UEU-ko zuzendariak euskerazko zientzia eta ikertzaileak izan zituen hizpide bere hitzaldian eta, ondoren, Gorka Azkunek, Deustuko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileak adimen artifizialari buruz egin zuen berba.

JUAN ANTONIO PALACIOS



## Argazkilarien lanak tabernetan

Urriaren ere argazki erakusketa ezberdinak egongo dira ikusgai herriko tabernetan: El Ambigu-n Juan Antonio Palaciosen lanak ikusteko aukera dago eta Portalea jatetxean, berriz, aurtengo Argazkilaritza Maiatzean programa ixteko egin zen argazki rallyko lanen erakusketa ipini dute. Bestalde, Iñaki Campos Deporrek argazkilaria opor aurretik Ez Dok tabernan ikusgai ipinitako argazkiak oraingoz dauden tokian lagatzea erabaki dute eta, beste bi erakusketak bezala, hau ere urriaren 31ra arte egongo da martxan.



## Ardo-dastaketa eguaztenean

Mikel Garaizabal enologoaren eskutik ardo-dastaketa saioa antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Berbetan programaren barruan. Elorrioko adituak eguaztenean, urriak 14, jatorrideitura duten Arabako Errioxako ardoaren eta Getaria, Bizkaia eta Arabako txakolinen ezaugarri bereizleak azalduko ditu, ...eta kitto!-n, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Dastaketan parte hartzeak 3 euro balio du eta izena emateko deitu ...eta kitto!-ra (943200918) edo bertatik pasa. Plaza mugatuak dira.



Mikel Garaizabal enologoak lehendik ere eskaini dizkigu horrelako ardo-dastaketak. Aditua da arlo horretan.

## Elkarrizketaren artea antzerki bihurtuta

Gaur 20.30ean Juan Mayorgaren "El arte de la entrevista" antzezlan eskainiko dute Iraia Producciones taldekoek Coliseo antzo-

kian. Juan Jose Afonsok zuzendutako lanean Alicia Hermida, Luisa Martin, Elena Rivera eta Ramon Esquinas antzezle ezagunek har-

tzen dute parte, baina lanean bost pertsonaia omen daude: hiru emakumezko, gizonzko bat eta bideo kamera bat. Izan ere, kameraren alde batean eta bestean elkarrizketatzera jolastuko dute. Sarrerak 20 euro balio du eta leihatilan zein Kutxabank-en erosteko aukera dago.



## "Nino Bravo Oroituz"-erako sarrerak

Dagoeneko salgai daude azaroaren 20an, 22.00etan Astelena frontoiak hartuko duen "Nino Bravo oroituz" ikuskizunerako sarrerak Kutxabanken (<https://ticket.kutxabank.es/janto/>), 10 eurotan. Valentziako abeslari ezagunari eskainitako emanaldian

Eibarko Cielito Musika Bandak Serafin Zubirirekin batera jardungo du, Felipe Garpe eta Laia Benachesen ahotsek lagunduta. Horrekin batera, kontzertuan Nino Bravoren bizitzari buruzko hiru bideo proiektatuko dituzte.



## laburrak

### LIBURU AZOKA

Eibarko Liburu eta Disko Azoka datorren barixakuan, urriaren 16an zabalduko dute Untzagan. Hilaren 25era arte egunero goizez eta arratsalde zabalduko dituzten stand edo postuetan, betiko moduan, haur zein helduendako argitara eman diren lanik berrienak ipiniko dituzte salgai prezio berezian.



### POESIARI BURUZKO HITZALDIA

Adolfo Castaños poetak hitzaldia emango du bihar arratsaldean, 18.00etatik aurrera, Bittor Sarasketa kalean dagoen Itzamna akademian, Poesia Tailerraren barruan. M<sup>a</sup> Angeles Igartua ibartarrarekin ezkondua, Bartzelonako poeta aditu handia da Federico Garcia Lorca, Leon Felipe eta Rafael Albertiren lanetan.



## JABI BAGLIETTO ARRIZABALAGA

1. URTEURRENA (2014-X-10)

*"Zure umoreaz eta bihotz onaz disfrutatu dugunok ez zaitugu sekula ahaztuko"*

**FAMILIAK GOGOAN ZAITU**





## Basatxerri produktoen dastaketa urriaren 27an

Urriaren 13tik 23ra bitartean eman beharko dute izena **Basatxerri produktoen dastaketa parte hartu nahi dutenek**. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako ekitaldi honetan txerriaren zati desberdinak dastatu ahal izago dira: urdaiazpiko, kabezada, txorizo eta saltxitxoi kuratuak; eta txakoli, sagardo eta trufa pateak eta Ezpeletako piparrarekin egindako pateak, besteak beste.

Txerrialeok elkarteak, Euskal mendietan txerriak aske hazten dituzten baserriarrak elkartzen dituen proiektua da.

Txerriak aske Euskal Herriko baso eta zelaietan hazten dituzte belar, ezkur, pagoezkur, gaztain, garo, sastraka eta bestelako elikagai naturalekin eta produktu onenekin (garia, garagarra, artoa, baba, e.a.) egindako pentsuak janez. Era honetan lortutako haragi eta txerrikiak kalitate gorenekoak eta elikadura segurtasun osokoak dira. Basatxerrin elkarrekin lanean jarduten duten txerriki ekoizle artisauen laguntzari esker, jatorrizko haragi kalitatea eta betidaniko ezagutza elkartuz, produktuen kalitate bikaina lortzen dute.



Basatxerri txerriak Nafarroan eta Araban jaio eta hego Euskal Herriko lau lurraldeetan gizentzen dira. Txerriki Duroc arrazaren kruze berezikoak dira eta arrazari, hazkuntza sistemari eta elikadurari esker, txerrien haragiak barneratutako koipe portzentai handia agertzen du eta honek haragi

xamurra eta gozoa izatea ekartzen du.

Produktoen dastaketa ...eta kitto! Euskara Elkarteak Urkizun dituen lokaletan izango da urriaren 27an eta parte hartu nahi dutenek 3 euro ordaindu beharko dute. Informazio gehiago nahi izanez gero 943 20 09 18 telefonora dei egin dezakezue.



## Molto Vivace-k zabalduko du Musikaldia hilaren 16an

Datorren asteko barixakuan, urriaren 16an hasiko da XXIII. Musikaldia guzurrean, 20.30etik aurrera Molto Vivace taldeak Coliseoan eskainiko duen emanaldiarekin. "Metalezko haize instrumentuentzako ganbera musika jendarteratzeko asmoz" Gasteizen sortutako taldean eibartar bi daude, Iñaki Orbegozo eta Pablo Zubiaurre.

Diotenez, "boskotearentzat bereziki idatzitako jatorrizko obrak jotzeaz gain, musikaren historian mugari bihurtu diren hainbat musika estilo eta generotako moldaketa eta egokitzapenak ere jotzen ditugu: Errenazimenduko melodia eder eta lasaiak, jazza, bluesa, pasodobleak, ranche-rak, jotak...". Sarrerak 5 euro balio du.

## Frank Sinatrari buruzko erakusketa Untzagan

Datorren asteko eguaztenean, hilaren 14an, Frank Sinatra abeslari eta aktorea jaio zela mendeurrena ospatzen dela-eta, haren inguruko erakusketa zabalduko da Untzagako Jubilatutako Etxearen erakusketagan. Erakusketak hilabete osoa iraungo du eta ohiko ordutegian izango da zabalik: asteleheneetik barixakura arte arratsalde 19.15etik 21.15era eta zapatu eta domeka eta jaiegunetan eguerdiz 12.00etatik 14.00ak arte.



## Ikasten-eko antzerki taldea, eguenean Coliseoan

Datorren asteko eguenean, 20.30etik aurrera antzerki taldeak Coliseoan, Ikasten elkartearen barruan sortutako La Novena antzerki taldeak aurkeztuko duen "Los esclavos, farsa contemporánea contra el consumo y otras circunstancias" izenburuko lanari esker. Antonio Martínez Ballesteroren tesuan oinarritzen den antzezlan honetan nagusitzen diren elementuak ikerketa eta salaketa dira. Ernesto Barrutiaren zuzendaritzapean, M<sup>a</sup>



Angeles Nagore, Isa Gonzalez, Miguel Alberdi, M<sup>a</sup> Jesus Saez, Carmen Muruamendaraz, Luci Torrecilla, Begoña Dominguez, Asun Sarasua, Jesus Martinez-Alcocer eta Eli Iriondo izango dira antzezleak eta, horiei laguntzen, Vicen de Luis eta Maribel Cascan (koroak), Jual Luis Agirre (pianoa) eta Jesus Arizona (soinua) arituko dira. Sarrerak 3 euro balio du.



# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, DANEL, domekan 12 urte egingo dozuz-eta. Jarraitu holan. Patxo potoluak famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JAKES, gaur zazpi urte betetzen dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Unaxen partez.



Zorionak, IZARO, bixar zapi urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, MARKEL, aurreko domekan 10 urte bete zenduaz-eta. Urte askotarako! Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NAIA Guridi Hernandez, domekan bost urte beteko dozuz-eta. Muxu bat famelixaren eta, batez be, Alaitzen partez.



Zorionak, EKAIN, haraiñegun bost urte egin zenduaz-eta. Segi holako jator. Muxuak etxekuen partez.



Zorionak, ALAITZ Urizar Bravo, bixar 14 urte egingo dozuzelako. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, zure ahizpa MAIDER-en partez.



Ongi etorri, IZEL Aranberri Zubizarreta, hillaren 8xan etorri ziñalako famelixara. Muxu bat danon eta, batez be, Lizar anaixaren partez.



Zorionak, HIART, eguaztenian sei urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, LEIRE Antxia! Heldu dira... 18... Maite zaittugu!!



Zorionak, PILAR Jauregi eta GILBERTO Bilbao, gaur urrezko ezteiak ospatzen dozuez-eta. Ondo-ondo pasa eguna!

## hildakoak

- Rosa Delgado Hernandez. 95 urte. 2015-X-3.
- Jose Luis Ondarza Orobengoa. 64 urte. 2015-X-4.
- Manuel Cid Cid. 90 urte. 2015-X-5.
- Sabino Maiora Glez. de Audikana. 82 urte. 2015-X-5.
- Andres Izarzugaza Zubillaga. 85 urte. 2015-X-5.
- Jabi Sarasua Solaun. 62 urte. 2015-X-8.

## jaiotakoak

- Hamza Mohamed Lamin. 2015-IX-15.
- Aleshka Tamang. 2015-IX-28.
- Imane Gasmí. 2015-IX-28.
- Jare Apraiz Aliende. 2015-IX-30.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**  
**10ean: 19.45, 22.30**  
**11n: 20.00**  
**12an: 20.30**

**“Reina y Patria”**

Zuzendaria: John Boorman



**(2 ARETOAN)**  
**10ean: 17.00, 19.45, 22.30**  
**11n: 17.00, 20.00**  
**12an: 20.30**

**“Regresión”**

Zuzendaria: Alej. Amenabar



**(ANTZOKIAN)**  
**10ean: 17.00 (1 areto), 19.45, 22.30**  
**11n: 17,00 (1 areto), 20.00**  
**12an: 20.30**

**“Golpe de estado”**

Zuzendaria: John Eric Dowdle



**(ANTZOKIAN)**  
**10ean: 17.00**  
**11n: 17.00**

**“Vacaciones”**

Zuzendaria: John Fr. Daley





## BARIXAKUA 9

### GAZTELEKUA

**17.00.** Disparate Eguna. Indianokuan.

### DJ SAIOA

**19.30.** Juanma Cano DJ-ak giroitutako txikiteoa (pintxo-potea), Valle tabernaren 100. urteurrena ospatzeko. Valle tabernan.

### ANTZERKIA

**20.30.** "El arte de la entrevista" (Iraya Producciones). 20 euro. Coliseoan.

## ZAPATUA 10

### GAZTELEKUA

**17.00.** Disparate Eguna. Indianokuan.

## DOMEKA 11

### GAZTELEKUA

**17.00.** Play/Wii. Indianokuan.

## MARTITZENA 13

### IKASTEN

**16.00.** Joskintza tailerra. Portalean.

## EGUAZTENA 14

### ARDO-DASTAKETA

**19.00.** Txakoli eta ardo dastaketa saioa, Mikel Garaizabal enologoaren eskutik. ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuarterean).

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19.00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### BILERA

**19.00.** Kirola egiten duten emakumeen iritzia jasotzeko bilera. Udaleko Berdintasun Arloak antolatuta. Andretxean.

### IKUS-ENTZUNEZKOAK

**19.30.** "Eslovenia" mendiko ikus-entzunezkoa, Periko Iriondoren eskutik. Eibarko Klub Deportiboan.

## EGUENA 15

### KALEETAN KANTUZ

**19.00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### ANTZERKIA

**20.30.** "Los esclavos, farsa contemporánea contra el consumo y otras circunstancias" (La Novena-Ikaste Antzerki Taldea). 3 euro. Coliseoan.

## BARIXAKUA 16

### HITZALDIA

**19.00.** "Los hongos alucinógenos en la cultura de los pueblos", Pedro Arrillagaren eskutik. Klub Deportiboak antolatuta, Eibarko Jardunaldi Mikologikoen barruan. Portalean.



Esloveniari buruzko ikus-entzunezkoa eskainiko du Periko Iriondok eguaztenean Klub Deportiboan.

## erakusketak


### ✓ Urriaren 31ra arte

**IÑAKI CAMPOSEN** argazki erakusketa. Ez Dok tabernan..



### ✓ Urriaren 31ra arte

**"RALLY DEPOR 2015"** argazki erakusketa. Portalea jatetxean..



### ✓ Urriaren 31ra arte

**J. ANTONIO PALACIOSEN** argazki erakusketa. El Ambigu tabernan..




### ✓ Urriaren 11ra arte

**"EIBAR MUNDUAN"** Eibar Foball Taldearen argazki erakusketa. Topalekuan.



### ✓ Urriaren 18ra arte

**"ERTIBIL BIZKAIA 2015"** erakusketa ibiltaria. Portalean.





## lehiaketak

### ✓ Erosketak euskeraz egitera animatzeko lelo-lehiaketa

Informazioa eta botazioak: **Urriaren 9ra arte**,  
www.facebook.com/etakittoaldizkaria helbidean.

### ✓ "Sanandresak Eibarren" kartel lehiaketa

Informazioa eta lanak aurkeztea: **Urriaren 13ra arte** (19.00ak arte), Pegoran.

### ✓ San Andres Bertso-paper lehiaketa

Informazioa eta lanak aurkeztea: **Azaroaren 2ra arte**, ...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11 - solairuarte).

## ikastaroak

### ✓ Jabetze Eskolako ikastaroak

**Noiz eta non:** Iraila eta abendua bitartean, Andretxean eta Portalean.

**Eskaintza:** "Maitasuna ez da kristorena!" (gaztelerez, 22 ordu, izen-ematea urriaren 9ra arte); "Nire burua zaindu, zu zaindu" (gaztelerez, 16 ordu, izen-ematea urriaren 19ra arte); eta "Transfeminismoa" (gaztelerez, 8 ordu, azaroaren 6ra arte).

## telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulatorioa.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Lurraldebus.....	943 00 01 17
Pesa.....	900 10 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63

## diru-laguntzak / bekak

- ✓ **XII. Juan San Martin beka.** Eskaerak: **Urriaren 9ra arte**, Pegoran.
- ✓ **Umeak Eskolara.** Eskaerak: **Urriaren 30era arte**, Eibar Merkataritza Gune Irekian.
- ✓ **Ikasleentzat.** Eskaerak: **Urriaren 30era arte**, Eibar Merkataritza Gune Irekian.
- ✓ **Langileak kontratatzeko.** Eskaerak: **Urriaren 30era arte**, Pegoran.
- ✓ **Ekintzaileentzat.** Eskaerak: **Azaroaren 9ra arte**, Debegesan (Vanessa Hortas, ekintzaile@debegesa.eus / 943820110).

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

## S U D O K U A

		5		3			2	
4	7		8				3	
			1					
8			6					5
		1	4		9	2		
9					2			6
				1				
		7			8		9	4
	2			9		6		

2	5	4	7	9	8	1	3	6
3	6	9	1	5	4	7	2	8
8	1	7	2	3	6	4	9	5
4	8	6	5	2	9	3	7	1
7	2	3	8	4	1	6	5	9
5	9	1	3	6	7	2	8	4
6	3	8	4	7	5	9	1	2
9	7	5	6	1	2	8	4	3
1	4	2	9	8	3	5	6	7

AURREKOEN EMATZA

## farmaziak

- ✓ **barixakua 9**  
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **zapateria 10**  
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **domeka 11**  
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **astelehena 12**  
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **martitena 13**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **eguztena 14**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **eguztena 15**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **barixakua 16**  
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)

GAUEZ BETI

**Elorza (J. Gisasola, 18)**



## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisia salgai Jardina eta kalean. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. 90.000 euro. Aukera bikaina. Tel. 650-628297.
- Pisia salgai Polonia Etxebarria kalean. 4 logela, egongela, sukalde eta bainugela osatuta eta komuna. Despenseta eta ganbara. Tel. 670-757393 eta 664-405112.

### 1.2. Errentan

- Pisia hartuko nuke alokairuan. 2 logelakoa. Hobe altzaririk gabe. Tel. 649-978832.
- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 652-032117.
- Pisia hartuko nuke alokairuan. Tel. 608-588444.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

- 200cc Maxi Scooter Piaggio-Vespa motorra salgai. Kofreekin edo gabe. Egoera onean. 600-700 euro. Tel. 628-521115.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Garaje bikoitza salgai Bittor Sarasketa kalean. Tel. 617-336462.
- Taberna traspasatzen da Eibar erdialdean. Martxan, bezero finkoekin. Tel. 695-711730.
- Jatetxea traspasatzen da Eibarren, terrazak handiarekin. Tel. 602-130737.

### 3.2. Errentan

- Bulegoa alokagai, bainuarekin. Jantzita. Tel. 600-540684.
- Garajea alokagai San Pion. 28 m<sup>2</sup>. Tel. 652-775746.
- Martxan dagoen ileapaindegia alokatzen da Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita umei eskolako lanekin laguntzeko ere. Tel. 622-225561.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 679-910991.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak edo garbiketarako egiteko. Tel. 685-768026.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko... Tel. 629-869572.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 672-337819.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-276360.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-564674.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Edozein ordutan. Erreferentziak. Tel. 631-975260.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-908730.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 655-231059.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 606-906729.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-084256.
- Gizonezkoa eskaintzen da gizon nagusiak zaintzeko. Baita etxeak, ganbarak etabar garbitzeko. Tel. 628-747805.
- Emakumea eskaintzen da etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 628-747805.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-076486.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 634-127294.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-123667.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 629-776212 eta 611-226678.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 653-075865.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 602-891885.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 661-001246.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi zabala. Tel. 631-282203.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 677-259560.
- Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 661-064027.
- Gizon arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatrian graduatua. Alzheimer gaixoei esperientzia. Autoarekin. Tel. 626-168258.

- Neska eskaintzen da arratsaldean edo gauetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 631-343232.
- Neska eskaintzen da sukaldari-laguntzaile edo kamarera jarduteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 617-905841.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 652-032117.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 602-192769.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Egunero 3 orduz gutxienez. Esperientzia. Tel. 662-283671.
- Neska eskaintzen da arratsaldean nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-197217.
- Neska eskaintzen da pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 610-619764.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 631-967238.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburu eta jaiegunetan. Tel. 681-055905.
- Neska eskaintzen da goizez orduka nagusiak zaintzeko etxean edo ospitalean eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 652-587259.
- Neska arduratsua eskaintzen da txakurrak ateratzeko edo astebururako txakur kanguru izateko. Tel. 657-728859.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 695-719744.
- Emakumea eskaintzen da 09.30etik aurrera etxeetan lan egiteko. Tel. 608-588444.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 677-101207.

## 4.2. Langile bila

- Neska behar da Zuzenbide ezaupideekin noizbehinkako lana egiteko. Deitu goizez. Tel. 943-120949.
- Autonomia behar da, furgonetarekin, Eibarren banaketak egiteko. Tel. 616-642631.
- Emakume euskalduna behar da baserrian nagusia zaintzeko. Autoarekin. Tel. 688-649596.
- Banatzailea behar da Txioan gidatzeko baimenarekin. Tel. 943-206346.
- Hoteleko harreraren lan egiteko pertsona behar da. Euskera eta ingelesa beharrezkoak. Kontutan hartuko dira hoteleko harreraren esperientzia eta frantsesa. Bidali curriculum: deba@aisiahoteles.com
- Kamarero/o eta sukaldaria behar dira, esperientziarekin. Behin-betiko kontratua izateko aukerarekin. Bidali curriculum, argazkiarekin: camareros12345@gmail.com

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Matematikak, Fisika, Kimika, Lengoia, Kontabilitatea eta Ekonomia klaseak ematen ditut. DBH, Batxilergoa eta Heziketa zikloak. Tel. 685-739709 eta 943-127365.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak etabarreko klaseak ematen ditut. 1-3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.
- Euskerazko klaseak ematen ditut: azterketarako prestaketa, IVAP, HABE, EGA,... Ume eta helduentzat. Baita on-line ere. Tel. 620-608065. Luz Mar.
- Magisteritza ikasten diharduen neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrik emateko. Esperientzia. Tel. 686-925897.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Bigarren eskuko umeendako Bugaboo-a salgai. 150 euro. Tel. 649-978832.
- Spin Ryder 3 erroberako patinetea salgai. Merke. Tel. 617-256466.
- Compex elektroestimuladorea salgai. Ia berrira, gutxi erabilia. Tel. 666-444074.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Aurreko barixakuan, Berbetan jaialdian, 5 urteko umearen txamarra berdea aurkitu genuen Untzagan. Tel. 943-200918.
- Irailaren 12an 7-8 neurriko neskaren suda-dera beige-a aurkitu nuen Urkizun. Tel. 657-713406.



# Hyundai Tucson Berria

## Aldatzea jarrera bat da.



#changeisgood

Aldaketa gure bizitzan zatia da. Sentsazio berriak aurkitzea eta une hunkigarriak bizitzea ahalbidetzen digu. Irudimenaren motorra da. Hyundai Tucson berria jarrera horretatik jaio da. Bere diseinu eta berrikuntza teknologikoek gidaritzaz gozatzeko zure era guztiz aldatzea ekarriko dute.

Esperimentatu aldaketaren indarra [www.hyundai.es](http://www.hyundai.es) helbidean

Tucson Berria **18.900€** tik aurrera



### OARSO CAR

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPLUZKOARAKO

### ELGOIBAR

Olaso Polig., 17 **943 74 14 80**



Hyundai Tucson Gama  
CO<sub>2</sub> Emisioak (gr/km): 119-175  
Kontsumo mistoa (l/100 km): 4,6-7,5

Tucson 1.6 GDI (131CV) 4x2 BD ESSENCE-rako gomendatutako prezioa, Penintsulan eta Balearretan (18.900€). BEZ, garrailoa, matrikulazio-zerge, promozio-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena, mantenimendu-eskaintza, Hyundai Solución Plana eta Gobernuaren PIVE Plana barne (Gobernuaren PIVE Planaren baldintzak betetzeaz irututa). Eskaintza aplikagarria gutxienez 60 hilabetetan eta 13.000€ko gutxienezko zenbatekoan Santander Consumer EFC S.A.-ren bidez finantzatuko duten bezero partikularrentzat. Finantza-entitatearen azterketa eta onarpenari lotutako finantziazioa. 2015/10/31ra arte balioko du eskaintza honek. Erakutsitako modeloa: Tucson Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziatori lotuta. Begiratu eskaintza eta mantenimenduen baldintza guztiak Hyundai kontzesionarioetako sare ofizialean edo [hyundai.es](http://hyundai.es) helbidean.

Urriaren **16** tik  
**25** era

asteazken zehar

11.00 - 14.00

17.00 - 21.00

asteburuan

11.00 - 14.30

17.00 - 21.30



# LIBURU eta Disko

# AZOKA Eibarren

– Eleberriak

– Aukerako  
liburuak

– %10eko deskontuak

– Euskal diskagintza





# Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



**20.000tik GORA PAZIENTE** ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko  
arreta jaso dezazun



[www.innovadentalclinicas.com](http://www.innovadentalclinicas.com)

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo  
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5  
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**